

Bixente Serrano Izko

Bertzetasunean, bat

A

ndeak eta Amazonas arteko ibai bazter batzuetan, *Nantu* izenarekin ezagutzen den herri bat dago. Detaile txiki bat, halere: bertzeek jarri diete izen hori; beraiek euren buruari deitzeko “jende”, “persona”, “herri”, erranahi duen bertzelako izena dute, bitxiki bertzeoi jakinarazi nahi ez diguten izen bat (Sarrionandiak ekartzen digu adibidea *Lagun izoztua* nobelan). Amerikan ere bai, *u'wa* izeneko indioak daude, eta “pentsatzen duena” erranahi du *u'wa* erramoldeak, Eduardo Galeanok dioenez. Biblia-ko lehen gizakiaren izenak, *Adam* horrek alegia, zer eta “gizon” eta “judu” –hau da, “judu”=“gizon”– ei du esangura. Egipto-erre, faraoien garaietako haiek, *kmt* bezala ezagutzen zuten euren burua; “beltza” erran gura zuen izenak, eta “zibilizatu” kontzeptuaren sinonimo gisa ulertzen omen zuten kolore hori. *Aka* izeneko tribuak “jende” erranahiko auto-izendapena du. Adibide gehiago ekartzen ditu Xabier Zabaltzak: *khoik-boiak* (hotentoteak), *ainuak*, *inuitak* (eskimalak), *bantuak*..., bakoitzak bere hizkuntzan “jende” erran gura duena; *magyar*ak eta *mansiak*, “jende” edo “hitze egin” erranahiko izenekin auto-ezagutzen dira. Adibide horiek eta bertze ugarik oihartzuna izan dute Juan Luis Arsuagarengan, *Al otro lado de la niebla* eleberrian; bertan aurkezten digun giza komunitate “bakoitzak bere buruari Gizon, edo Herri, edo Jende” deitzen dio, “Ez-jende edo Arrotz izenekin” deitzen dielarik, ordea, bertzeei. Ezagunagoa zaigu greziar eta erromatar klasikoek “barbaro” izendapena beraiek ez bertze guztiei deitzeko, hots, haien aburuz totalka-edo hitze egiten zutenei –hitze egiten ez zekitenei– deitzeko. Euskaldunok ere “erdaldunak” ditugu erdaraz –erdi-hizkuntzaz– egiten digutenak.

Bitxiak dira kontu horiek guztiak eta mereziko luke ikerketa antropologiko



JOSU SANTESTEBAN

kulturala. Izatez, gogoeta anitz egin dira horren harira. Errazenak kutsu moralekoak ditugu: giza erkidego guztien berekoikerian oinarrituak, adibidez. Horren arabera, komunitate guztiok dugu joera hori, eksklusibotasun halako batekin geure burua soilik jendetzat hartzeko, eta bertze guztiak, arrotz gisa, ez-jendetzat jotzeko, gu ez direnen kontrako –“bertzetasunaren” kontrako– etsaigo amorratuak eramanda. Alta, moralistegia deritzot uste horri: jendeok, berez, gaiztoa izanen bagina bezala. Hori baino logikoa go zait kategoria moraletatik kanpo dagoen beldurrari leporatzea: ezezagunaren, bertzearen, “bertzetasunaren” aurreko beldurrari leporatzea printzipioz. Bai eta isolamenduari ere, Xabier Zabaltzak apuntatzen duen bezala.

Paradoxa polita ekartzen digu, gainera, bertze ikuspuntu honek, identitate eta herri-izendapena historiaren hari galduetan ezkutaturiko taldeen isolamenduarekin lotzen duena, edo/eta giza historia osoan gaur arte eragile izan dugun –eta dugun– beldurrarekin, “bertzetasunaren” aurreko beldurrarekin. Izan ere, nola ez zuten usteko talde isolatu bateko kideek beraiek bakarrik zirela jende, eta inguratzen zituen guztia –naturalezaz– ez-jende? Nola ez zuten usteko bertze horiek ere zirela naturalezako bertze mehatxu bat gehiago, ez-jende, bertze giza talde ezezagun batekin topo egitean ehizatan eta haratustel edo

sasitza bila elkarren lehian ibili behar hartan? Horra hor paradoxa: giza talde desberdinek, nork bere buruari “jende”-edo erranahi komuneko izen desberdinak egokitzean, gizakiak guztiak espezie bakarrekoak zirela aitortzen zuten bide nabar.

Ai ene, banengoen beldur: “bertzetasunak” batzen gaitu. Zertan, giza izaeran ala natur mehatxuan, zuk zeuk hauta, ene irakurle gogokide/ezkide hori. ■

Komunitate guztiok dugun joera da:
 eksklusibotasun halako batekin geure burua
 soilik jendetzat hartzekoa, eta bertze guztiak,
 arrotz gisa, ez-jendetzat jotzekoa,
 gu ez direnen kontrako
 –‘bertzetasunaren’ kontrako–
 etsaigo amorratuak eramanda